

DONOSTIAKO UDALEKO GIZA ESKUBIDEEN BATZORDE BEREZIAK ATXIKIMENDUA ADIERAZTEN DIE URRIAREN 17AN POBREZIA ERROTIK KENTZEKO NAZIOARTEKO EGUNA OSPATZEKO PROGRAMATURIKO EKINTZEI

Donostiako Udaleko Giza Eskubideen Batzorde Bereziak atxikimendua adierazten die urriaren 17an Pobrezia Errotik Kentzeko Nazioarteko Eguna ospatzeko programaturiko ekintzei.

Horiek horrela, Donostiako Udalak bat egiten du Pobreziaren Aurkako Espainiar Aliantzak antolaturiko Pobreziaren Aurkako Mobilizazio Astearekin —gure artean Donostiako Pobreziarik Ez Plataformak Gipuzkoako Gobernuz Kanpoko Erakundeen Koordinadoraren bidez antolatu du—, pobreziaren aurkako manifestazio batekin amaituko dela urriaren 21ean (larunbata) hainbat hiritan, besteak beste. Donostian.

Gainera, Donostiako Udala atxikitzen zaio *Jaiki zaitetz pobreziaren aurka* mundu ekimenari, Nazio Batuen Milurtekoaren Kanpainak sustatzen baitu *Pobreziaren Aurkako Mundu Deia* aliantzak diseinaturiko ekintzen esparruan. Hala, Donostiako Udalak programa aditzera ematen lagunduko du www.donostia.org udal web gunearen bitartez, Milurteko 8 konpromisoak betetzearen aldeko konpromisoa jendartean azalduta.

Giza Eskubideen Batzorde Bereziak berretsi egiten du PSE-EE, PP, EAJ, EA eta EB-B taldeek aurkeztu eta Donostiako Udalbatzak 2005eko abenduaren 27an onartutako Pobreziaren Aurkako Erakunde Adierazpena.

Gainera, berriro aldarrikatzen ditu NBEk 2015. urterako jarritako Zortzi Garapen Helburuak, baita horiek aditzera emateko, sustatzeko eta bene-benetan betetzeko erabakimen sendoa agertzen ere. 2000. urtean 198 estatuburuk honako helburu hauek onartu zituzten:

1. Pobrezia gorria eta gosea errotik kentzea
2. Oinarrizko hezkuntza unibertsala lortzea
3. Generoen berdintasuna eta emakumearen autonomia lortzea
4. Haur hilkortasuna murriztea
5. Amen osasuna hobetzea
6. HIESaren, paludismoaren eta beste gaixotasun aurka borrokatzea
7. Ingurumenaren iraunkortasuna bermatzea
8. Garapenerako mundu elkarte bat sustatzea

Hala, PSE-EE, PP, EAJ, EA eta EB-B udal taldeek beste behin sendesten dute donostiarrak eta erakundeak munduko pobreziaren eta berdintasunik ezaren aurka borrokatu beharraz kontzientzia harrarazteko eta zeregin horretan esku harrarazteko konpromisoa.

DONOSTIAKO UDALEKO GIZA ESKUBIDEEN BATZORDE BEREZIA

Donostian, 2006ko urriaren 17an